

* Hizpideak

Madrilgo egunak

Koldo Aldabe
kaldabe@berria.info

Itzuliko gara; itzuliko garela, e!» Joan Mari Torrealdairan agur hitzak, Martin Ugaide kultur parkeko sarrerako ahoan bildutako ei esandakoak. Burua tente eta mezu baikorrek, *Egunkaria* auziko bost auzipetuek Madrilerako biderei ekin zioten atzo.

Baikor eta burua goian, egindakoaz harro daudelako; herritarren eta herrigintzaren bultzadaz euskarazko hedabide proiektua aurrera eramatea herritarrentzat eta herrigintzarentzat.

Txaloka esan genien agur, haien baikortasunaz kutsatu nahian; gaur piztaren ahutzetan egongo direla ahaztu ezinda, ordea. Gandiagaren *Madrilgo lagunak*-en hitzek Tapiaren ahotsean oharatzen baitgute euskaldun gisa epaituko dituztela, justiziak ihes egin zuen —inoiz han sartu baldin bazen— auzitegi beldurgarri horretan.

Gaur eta bihar Inksizioaren aurrean egongo badira ere, euskaldunon hatsa izango dute lagun, eta larunbatean, Bilbon, *Egunkaria libre!* oihukatzeo eguna izango da, Madril absoluzioaz beste epairik ez dugula onartuko esateko eguna.



Hitz beste
Anjel Lertxundi

Talaia


Igandeko kartzelako saioan, kazetari batek idatzi behar duen azken zutabearen gaia jarri zutenean, bertsolariek atera zioten txirbil ederrik aukerari, baina hiltzeko zoriaren perspektibatik inork ez kantatu izanak harritu ninduen. Inor ez jarri gaitzak jota dagoen kazetari baten larrian. Inork ez hautatu izanak Lauaxetaren trantzea, fusilatua aurretik azken poema —azken zutabea— idazten:

«Goiz eder onetan erail bear nabe...»

Orain gutxi Barril & Barral argitaletxeak argitaratu duen *Vivir a muerte* liburua eragindako efektuaren pean nengoelako etorriko zitzaizkan, agian, inork jorratu ez zuen talaia hori. Alemanen okupazioan Frantziako kontzentrazio-esparruetako kondenatuek idatzitako azken gutunuen antologia ziragarri bat da liburua. Kondenatuek ahaide eta lagunei zuzendutako gutunak badira ere, guregana iritsi dira, guri zai ziguru mintzo giza kondizioaren muturrenoko egoeratik. leak laztekoa.

Montxo

C02-aren ZIKLOA



Gaurtxe

Jose Luis Alvarez Enparantza, 'Txillardegil'

Idazlea

Paco Lopez musuka errebitu dute Madril. Berak berreskuratu baititu Erreinuarentzat espainiarrek galdutzat ematen zituzten «provincias discolors del Norte» direlakoak.

Paco Lopezek lortu du Lehendakaria *lendacaria* bihurtzea; eta Guardia Zibila Gernikako Batzarretxean armaturik sartzea.

Eta Lehendakari hitza betirako lardaskatzea.

Paco Lopezek iseka egin dio euskal jendeari, totel modura esakunak nekez ahoskatuz.

Jadanik Lehendakariak ez du ezer ikustekorik Juan Jose Ibarretxekin. Are gutxiago 1936an Gernikan, gerla betean

eta bonben ezlandak entzuten zirelarik, Jose Antonio Agirre Lekuberekin eta zin dramatikoaekin (espreski Lopezek arbulatua, irakurleak dakienez). Paco Lopezek lortu du frankismoaren garaian ezagutu genituen *Delegado Provincial del Movimiento* haien ilaran eroso eta pozarren kokatzea.

Jose Antonio Pastorrek, berriaz, beste balentria bat burutu du. *Casa del Pueblo* direlakoe-tan barre algara galantak entzun araziz.

Eta gure «Irrintzi bat entzan da, mendi tontorrean», normalizatu bide du honetara: «*Irrinchi va que chuta, venid a torrear*».

Frente Espainola presaka eta muturka ari da lanean.

«*Hay que españolizar a todos los niveles, y a toda velocidad. El viejo sueño de la Cantabria Oriental, con un poco de chistu para despistar, está a la vista*».

Eta eginkizun horretan Isabel Zelaa-rengan topatu du

Zeren zain gaude PP-PSOE Frente Espainolaren aurka gure Gune Abertzalea eraikitzeko? Gaurko helburu nagusia, hitz batez, Paco Lopez eta enparauak gure Instituzioetatik kanpora botatzea da

Paco Lopezek laguntzaila bipila.

Bertendonkoen eta A ereduaren txapeldunak, garbi esan du: «*Hay que contrarrestar el trabajo nefasto realizado por las ikastolas y sus prejuicios identitarios. La escuela vasca debe ser una escuela normalizada; es decir, una escuela española, que respete las múltiples identidades de los vascos. Y teniendo siempre en cuenta que el vascuence es una lengua muy difícil*»(??).

Zeren zain gaude PP-PSOE Frente Espainolaren aurka gure Gune Abertzalea eraikitzeko?

Gaurko helburu nagusia, hitz batez, Paco Lopez eta enparauak gure Instituzioetatik kanpora botatzea da.

Gogoa har dezagun beste adibide bat aipatzekotan, Alberto Surok EITB burutu duen garbiketeta lotsagaldua. Xeheki azaldu du hau Ander Iturriotz soziologoak isilpean

gauzatzen ari den lana: «EITB, konplota» (BERRIAN, Abenduaren 12an, 4. orrialdean).

Artikulu zinez bikaina. Dena ari da abilki desmontatzen. Eta gu, artean, pikutan.

Izan ere, Suro donostiarrada, eta 46 urte ditu. Franco hil zenean, 12.

34 urte horretan, AEK, HABE, eta abar luze bat izan ditu bere esku euskaraz ikasteko. Eta ez du egin.

Orain ikasbide xelebrea hautatu du. «*El euskera es para mi un desafío personal; que espero vencer... hablando con mis compañeros euskaldunes*». Bapo, motel.

Geroak erranen. Baina artean EITBko euskal kateaz Surok ezer ez daki zer deabru esaten duten.

Gaitza. Nekez aurkituko da European tamaina horretako lotsagabekeriarik!

Gune Abertzalea noiz sortuko? Erdaraz «*Polo Soberanista*» hori, bai. Zeren zain gaude, emergentzia une honetan, geure arteko desberdintasunen gaitetik, erdaraz *Polo Soberanista* delakoa sortzeko. Gune Abertzalea euskaraz.

Lehenago eta hobeto.

Eta gaurtxe, onena.